



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA KARRIKA

ZENBAGARREN SAIOA: 5

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-03	19:30	21:26

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Jon del Olmo, Eneritz Arbelaitz		
Herritarrak:	Euskaraz: 17		Elebitan: 1
	Emakumezkoak: 8		Gizonezkoak: 10
	<30 urte: 2	31-50 urte: 5	51-65 urte: 10 >66 urte: 1

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Ez da galderarik egon.
Aurrekontuak 2019	Ez da galderarik egon.
Auzoa	<p>Cadarsen zer egingo den galdetu da. Erantzun da orain proiekturik ez dagoela, eraistea soilik. Aipatu da eraisteko prozesua luzea ari dela izaten, tramitazioa luzea delako. Lurraren kutsadura aztertuta ikusi beharko da zer egin daitekeen.</p> <p>Bidegorriak 270.000€ko aurrekontua du, 2,5m-ko zabalera duena eta argiteriarekin. Planoak errepasatu dira. Argiteria jarriko da.</p> <p>Haurreskola berriro zabalduko ote den galdetu da. Obra zela eta beste leku batera bideratu zen eta aurten beraiek leku horretan jarraitzea proposatu dute. Ez dakigu berriro haurreskola itzuliko den edo eraikinarekin beste zerbait egin behar den. Pentsatu beharko da berritzeko edo egokitzeko ere proiektu bat egin beharko dela, eraikina mantentzeko.</p>

Haur parkeen inguruan aurreko auzoko bileretan hitz egin zen eta udaletxetik kooperatiba atzekoa indartzeko proposamen batzuk aurkeztu dira. Plazatik parkea kentzea batzuk ez dute ongi ikusten, kotxeei eremua ematen zaiolako. Beste batzuk berriz egoki ikusten dute. Eztabaida luzatu da, baina azkenean honakoa erabaki da:

- 1) Plazako parkea mantendu eta hesitu. Hesitzeko markesina bera ere erabili daiteke. Papelera ere agian mugitu egin beharko da, pilaren ontzia ere bai. Bankoak ere mantenduko dira.
- 2) Parkea eta markesina ez badira sartzen, aztertu beharko da.

Aipatu da kooperatiba atzeko parkean hondarra falta dela eta iturria izorratuta dagoela.

Plazan beiraren ontzia ere gaizki dago. Erroturre etxadia aldera mugitzea aipatzen da, bidegorriaren bukaeran. Kontuan hartu behar da beira biltzera etortzen den kamioiak kablerik ez edukitzea.

Eskatu da abiadura mugatzeko gomazko kroskak jartzea. Hori hitz egin zela obra aurretik. Erantzun da obra egin ondoren ikusiko zela. Kroska horien inguruan eztabaida sortu da. Arazoari irtenbidea ematearekin adostasuna dago. Bozkatu da gomazko kroskak jartze eta gehiengoa alde dago. Auzo guztietan arazoak daude abiadurarekin. Beste leku batzuetan ere kroskak jarrita ez da lortzen abiadura jaitea. Radarraz ere hitz egin da. Hala ere, amaieran onartu dena hau izan da: lehenik kartelak jartzea aipatu da. Plazan haurrak jolasten ari diren seinalea, auzoko sarreran ere kartel handi bat jartzea eskatzen da: auzo honetan abiadura errespetatu... Kroskak plazara sartzeko bi aldeetan eskatu dira: Presondon, Petrine inguruan eta haurreskolako horretan. Batez ere Presondo aldetik sartzen omen dira plazara abiadura handian. Bestalde, auzotarrek ere auzotarren artean kanpaina moduko bat egitea aipatu da. Udaletxean eskuorri batzuk prestatzeko aukera ere aipatu da (abiaduraren inguruan hitz egin dena eta kroskak eta radarra jartzea proposatu direla aipatuz) eta auzotarrek banatu.



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



	<p>Karrikako sarrerako obra egin zenean aparkaleku bat jarri zen. Hori landa eremua da eta jabeari itzuliko zaio laster.</p> <p>Karrikako obraren ondoren estoldak soinu handia ateratzen du. Goma jartzea eskatu da.</p> <p>Aurrekontuari dagokionez Karrikan inbertsio handiak egin dira (sarrerako obra eta orain bidegorria), beraz, orain beste inbertsio nagusirik ez da egingo. Hala ere, auzotar batek gogoratu du frontoia estaltzeak auzoa asko hobetuko lukeela.</p>
--	---

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,64
bilera ongi gidatu da	8,93
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,43
Auzotar kopurua	5,71
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,08
Saioa probetxugarria izan al da?	8,43
Egunaren egokitasuna	8,29
Orduaren egokitasuna	8,00
Lekuaren egokitasuna	9,21
Batezbestekoa	8,19